HERNANIKO ZIKUÑAGA INGURUKO URBANIZAZIOA HOBETZEKO LANEK ETA KARABELEKO BIRIBILGUNEA ERAIKITZEKOEK ERAGINDAKO LURREN JABETZA ESKURATZEARI BURUZKO HIRIGINTZA HITZARMENA.

Hernanin, 2010eko otsailaren 5ean.

ELKARTU DIRA

BATETIK: MARIAN BEITIALARRANGOITIA LIZARRALDE andrea, Hernaniko Udaleko alkate-lehendakaria.

ETA BESTETIK: FERMIN ORIA IRIBARREN jauna, adinez nagusia, 15.231136-F NAN zenbakia duena eta jakinarazpenetarako helbide hau duena: LOIRE SAFE fabrikaren eraikina, Zikuñaga 22 (Hernani)

PARTE-HARTZAILEAK

MARIAN BEITIALARRANGOITIA LIZARRALDE ANDREA, HERNANIKO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa, 2009ko urriaren 29 eguneko Udal Batzarrak erabakita ekitaldi honetarako eskumena jaso ondoren.

Hitzarmen honekin batera erabaki horren ziurtagiria doa (1. Eranskina).

FERMIN ORIA IRIBARREN jauna, "LOIRE SOCIEDAD ANÓNIMA FRANCO ESPAÑOLA" (LOIRE SAFE) sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa. Entitate merkantil hori "ALPIRO SA" izena zuela sortu zen mugagabe Donostiako notario izandako Francisco Javier Roig Morrás jaunak 1967ko ekainaren 27an baimendutako eskritu publikoan; hainbat alditan aldatua, azkena Estatutuak 19/89 Legeari egokitzeko, aipatutako Roig Morrás notario jaunak 1989ko azaroaren 6an baimendutako eskritura bidez (Protokoloko 4.086 zk., Gipuzkoako Erregistro Merkantilean inskribatua, Tomoa 971, orria SS-92, Folioa 206, inskripzioa 18.a. IFZ A-20022844.

CONVENIO URBANISTICO RELATIVO A LA ADQUISICIÓN DE LOS TERRENOS AFECTADOS POR LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE MEJORA DE LA URBANIZACIÓN DE LA ZONA DE ZIKUÑAGA Y DE CONSTRUCCIÓN DE LA ROTONDA DE KARABEL EN HERNANI.

En Hernani, a 5 de marzo de 2010.

REUNIDOS

DE UNA PARTE : Doña MARIAN BEITIALARRAN-GOITIA LIZARRALDE, Alcalde-Presidente del Ilmo. Ayuntamiento de Hernani.

Y DE OTRA: Don FERMIN ORIA IRIBARREN, mayor de edad, con DNI nº .15.231.136-F y domicilio a efectos de notificaciones en el edificio fábrica LOIRE SAFE, Zikuñaga 22 (Hernani).

INTERVIENEN

DOÑA MARIAN BEITIALARRANGOITIA LIZARRALDE, en nombre y representación del Ilmo. AYUNTAMIENTO DE HERNANI, facultada para este acto por acuerdo del Pleno Municipal de fecha 29 de octubre de 2009.

Se acompaña al presente convenio certificado de dicho acuerdo como Anejo nº 1.

Don FERMIN ORIA IRIBARREN, en nombre y representación de la Sociedad "LOIRE SOCIEDAD ANÓNIMA FRANCO ESPAÑOLA" (LOIRE SAFE), entidad mercantil constituida por tiempo indefinido con la denominación "ALPIRO, S.A." en escritura pública autorizada por el que fue Notario de San Sebastián, Don Francisco Javier Roig Morrás, el día 17 de junio de 1967; modificada en repetidas ocasiones, la última para adaptar sus Estatutos a la Ley 19/89 en escritura autorizada por el citado Notario Roig Morrás el día 6 de noviembre de 1989, al nº 4.086 de su Protocolo, e inscrita en el Registro Mercantil de Guipúzcoa al Tomo 971, Hoja SS-92, Folio 206, inscripción 18ª. CIF A-20022844.

Sozietatearen ahaldun gisa arituko da, administrazio kontseiluak 2009ko irailaren 9an egindako bileran hartutako erabakiaren indarrez. Bere ordezkaritza egiaztatzeko 2009ko irailaren 9 egunean Donostiako Fermin Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean bere alde emandako ahalordearen kopia aurkeztu du (2. eranskina).

Actúa en su calidad de Apoderado de la misma, y en virtud de acuerdo adoptado por el Consejo de Administración de la Sociedad en sesión celebrada el 9 de Septiembre de 2009, acreditando su representación con la copia del poder otorgado a su favor ante el Notario de San Sebastian Don Fermín Lizarazu Aramayo, que se acompaña como documento Anejo nº 2.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

LEHENA.-

LOIRE SAFE sozietatea Zikuñagako 22 zenbakian dagoen finkaren jabea da (katastroko erreferentzia: 6367104). Hona hemen finka horren erregistroko deskribapena:

Finkaren erregistroko deskribapena:

LANDA-LURRA.- Hernaniko herriaren jurisdikzioan dagoen ereiteko erribera lurra. Bost mila berrehun eta hamalau metro eta hirurogeita hamanbost dezimetroko azalera dauka (5.214,75 m^2) eta honako muga hauek ditu: iparraldean, Nafarroako errepidea eta banandutako lursail-zatia; hegoaldean, lursail banandua, Loire SAFEri saldua; ekialdean, Nafarroako errepidea; eta mendebaldean, Eziagoko bidea eta banandutako lursaila.

Erregistroko deskribapen hori hala izanik ere, bertaratutako merkantilak aditzera eman du finka hori Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidearen Proiektuaren lanen ondorioz eraginda gertatu dela eta, proiektu hori dela eta zenbait zati desjabetu egin zaizkiola. Desjabetzearen ondoren finka, orain, benetan, Hegoaldeko Saihesbide horren ondorioz, lau zatiz osatua dago, saihesbideak finka zeharka zatitzen baitu ekialde-mendebalde zentzuan eta, era berean, lurra luzeka ere zatitua baitago iparralde-hegoalde zentzuan (Eziagoko bidea). Hartara, lau zatien azalera, guztira, duela gutxi egindako neurketaren arabera, eta egindako desjabetzea eginda ere, lau mila zazpiehun eta berrogeita zortzi metro koadrokoa da (4.748 m^2) eta muga hauek ditu: hegoaldean, Loire SAFE finka; iparraldean, Nafarroako errepidearen bide-banaketa; mendebaldean, Urumea ibaia; eta ekialdean, lehen Citroën-ena izandako finka.

Titulua: Murua eta Lezama-Leguizamón anai(-

PRIMERO.-

La Sociedad LOIRE SAFE es propietaria de la finca sita en el número 22 de Zikuñaga (referencia catastral 6367104), cuya descripción registral es la siguiente:

Descripción registral de la finca:

RÚSTICA.- Terreno sembradío ribera radicante en jurisdicción de la villa de Hernani. Ocupa una superficie de cinco mil doscientos catorce metros cuadrados con setenta y cinco decímetros cuadrados (5.214,75 m^2) y linda: Norte, con carretera a Navarra y porción segregada; Sur, con parcela segregada y vendida a Loire SAFE; Este, con la carretera a Navarra; y Oeste, con el camino de Eciago y parcela segregada.

No obstante la descripción registral anterior, la mercantil compareciente manifiesta que dicha finca se ha visto afectada por las obras del Proyecto de la Variante Sur de Hernani, en cuyo contexto le han sido expropiadas algunas partes, tras lo cual la finca se conforma ahora, en realidad, de cuatro porciones, que resultan de la existencia de la referida variante Sur, que divide la finca transversalmente en el sentido Este-Oeste, y asimismo, el terreno está dividido longitudinalmente en el sentido Norte-Sur, por el camino de Eciago, siendo la superficie completa de las cuatro porciones, según recientemente medición, y pese a la expropiación efectuada, de cuatro mil setecientos cuarenta y ocho metros cuadrados (4.748 m^2), y linda: al Sur, con la finca Loire SAFE; al Norte, con la bifurcación de la carretera a Navarra; Oeste, río Urumea; y al Este, con la finca que fue anteriormente de Citroën.

Título: De compraventa a los hermanos Murua y

arrebei)ei egindako salerosketarena, 2001eko azaroaren 14an Donostiako notario José Carlos Arnedo Ruiz jaunaren aurrean emandako eskritura publikoan.

Lezama-Leguizamón, en escritura pública otorgada el 14 de noviembre de 2001 ante el Notario de San Sebastián Don José Carlos Arnedo Ruiz.

Inskripzioa: Donostiako 5 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatua, Tomoa 2138, Liburua 488, Folioa 120, Finka zk. 2792.

Inscripción: Inscrito en el Registro de la Propiedad nº 5 de los de San Sebastián al Tomo 2138, Libro 488, Folio 120, Finca nº 2792.

Honekin batera doan planoan (3. eranskina) mugatzen da deskribatutako finka, katastroko lurzati-planoaren bidez (katastroko erreferentzia: 6367104, erreziboko zenbaki finkoa 3110094 G).

En el plano adjunto (Anejo 3) se delimita la finca descrita, mediante el plano parcelario catastral de la misma (referencia catastral 6367104, número fijo de recibo 3110094 G).

Finka honi aplikatu beharreko hirigintza-erregimena, Hernaniko Hiri Antolamenduko Arauen Berrikuspenaren arabera (Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12an behin betiko onetsia, baldintzapena), LH-27.5 areari dagokiona da.

El régimen urbanístico aplicable a dicha finca, según la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico del Municipio de Hernani, aprobada definitivamente con condicionados, por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa con fecha 12 de Junio de 2007, es el que corresponde al Área SU-27.5.

BIGARRENA.-

SEGUNDO.-

2003ko martxoaren 27an, LOIRE SAFE merkantilak bere instalazioak Idom Ingeniería y Consultoría SAk egindako proiektuaren arabera handitzeko lizentzia eskatu zion Hernaniko Udalari.

El 27 de marzo de 2003, la referida mercantil LOIRE SAFE solicitó licencia al Ayuntamiento de Hernani para la ampliación de sus instalaciones, conforme al Proyecto elaborado por la ingeniería Idom Ingeniería y Consultoría SA.

Udaleko Gobernu Batzordeak, 2003ko apirilaren 25ean egindako bileran obra hori egin zedila baimendu zuen, hainbat baldintzapean. Horien artean hau: hirigintza planeamenduan Karabeleko biribilgune berria egiteko eta erriberako bidea zabaltzeko aurreikusitako lursailaren zorua lagatu behar ziola merkantil horrek udalari, 1.418 m^2 azalera, gutxi gorabehera.

La Comisión de Gobierno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 25 de abril de 2003 autorizó la ejecución de dicha obra, condicionando esta autorización, entre otras, a la de que la referida mercantil efectuara a favor del Ayuntamiento de Hernani, la cesión del suelo de la parcela destinada por el planeamiento urbanístico a la construcción de la nueva rotonda de Karabel y a la ampliación del vial de ribera, en una extensión que alcanza los 1.418 m^2 aproximadamente.

Zehazki, lizentziaren baldintza horren arabera lagatu beharreko lurzorua LEHEN aurrekarian deskribatutako finkakoa da. Hona hemen dekribapena:

Concretamente el suelo que debía ser cedido conforme a la condición de la citada licencia, procedería de la finca descrita en el antecedente PRIMERO anterior, y contaría con la siguiente descripción:

"Bi lursail-zatiz osatutako lursaila, guztira 1.418 m2-ko azalera duena eta dekribapen eta muga hauek dituena:

"Parcela de terreno constituida por dos porciones que en total suman 1.418 m2 de superficie y cuya descripción y linderos es la siguiente:

- *A lursail-zatia: iparralderago dago, 771 m2-ko azalera du, eta muga hauek:*
- *Porción A: Sita más al Norte, cuenta con 771 m2 de superficie, y linda: por el*

iparraldean, jabari eta erabilera publikoko lurrak, Karabeleko zubiarekin bat egiten dutenak, gaur egungo biribilgunearekin; hegoaldean, jatorrizko finkaren gainerako zatia; ekialdean, Eziagoko bidea; eta mendebaldean, jatorrizko finkaren gainerako zatia eta Urumea ibaia.

- *B lursail-zatia: aurrekoa baino ekialderago dago, 647 m2-ko azalera du, eta muga hauek: iparraldean, jabari publikoko lurrak, gaur egungo Karabeleko biribilgunea osatzen dutenak; ekialdean, banandu zeneko jatorrizko finkaren gainerako zatia; ekialdean, Nafarroako errepidea; eta mendebaldean, Eziagoko bidea.*

Jatorrizko finkaren gainerako zatia:

Bananketaren ondoren, jatorrizko finkaren gainerako zatia 3.796,75 m2-ko erregistroko edukierako azalera duela geratzen da, nahiz eta, Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidearen Proiektuaren baitan egindako desjabetzearen ondorioz, benetan 3.330 m2 dituela geratzen da. Lurra lau zatitan banatua jarraitzen du. Bananketak horietako bitan izan du eragina, iparralderagoen dauden bietan, Eziago bideak banantzen dituenak. Finkak bere horretan eusten die mugei, iparraldean izan ezik: orain banandutako bi lursail-zatiekin egiten baitu muga; eta mendebaldean eta ekialdean, orain banandutako lursail-zatiekin ere muga egiten baitu.

Finka grafikoki mugatzen duen planoa eransten da (4. eranskina).

HIRUGARRENA.-

LOIRE SAFEk 2003ko uztailaren 9an udal lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa eta eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiteagatik ordaindu beharreko zerga Hernaniko Udalari ordaindu bazion ere (534 € eta 43.566 €, hurrenez hurren), entitate honek benetan ez zuen instalazioak handitzeko obra burutu, eta Udalbatzari obrak egiteko epea luzatze aldera aurkeztutako idazkietan alegatu zuen obrak atzeratzeko arrazoiak une hartako egoera ekonomikoan zeudela. Dena dela ere, gaur gaurko, udalbatzak ez du lizentzia hori iraungitzeko espedienterik hasi.

Norte, con terrenos de dominio y uso público que conectan el puente de Karabel, con la rotonda actual; por Sur, con resto de finca matriz de donde se segrega; por Este, con vial o camino de Eziago; y por Oeste, con resto de finca matriz y río Urumea.

- *Porción B: Sita más al Este que la anterior, cuenta con 647 m2 y linda: al Norte, con terrenos de dominio público que conforman la actual rotonda de Karabel; por Sur, con resto de finca matriz de la que se segrega esta finca; por este, con vial o carretera de Navarra; y por Oeste, con el camino de Eziago.*

Resto de finca matriz:

Tras la segregación, el resto de finca matriz queda con una superficie d e3.796,75 m2 de cabida registral, aunque considerando tras la expropiación sufrida por la finca en el marco del Proyecto de Variante Sur de Hernani, queda en realidad con 3.330 m2. El terreno sigue estando dividido en cuatro porciones, de las que la segregación anterior afecta a dos de ellas, las dos más sitas al Norte, y que se separan entre ambas por el camino de Eziago. La finca conserva sus linderos, salvo por Norte, que linda ahora con las dos porciones segregadas; y por Oeste y Este, que linda ahora además con las porciones segregadas.

Se acompaña como Anejo n º 4 plano en el que se delimita gráficamente la referida finca.

TERCERO.-

A pesar de que LOIRE SAFE satisfizo al Ayuntamiento de Hernani el 9 de julio de 2003 la tasa por la expedición de la licencia municipal y el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, por importes de 534 € y 43.566 € respectivamente, en realidad esta entidad no llegó a ejecutar la obra de ampliación de sus instalaciones, alegando en los varios escritos de prórroga presentados ante la Corporación como causa de los aplazamientos, circunstancias relativas a la coyuntura económica del momento. En cualquier caso, hasta el día de hoy, la Corporación no ha iniciado expediente de

Bestalde, LOIRE SAFEk ez zuen udalbatzak jarritako baldintza bete, alegia, Karabeleko biribilgune berria egiteko eta Urumea ibaiko erriberako bidea zabaltzeko aurreikusitako lursailaren zorua lagatzeko baldintza.

Une honetan Hernaniko Udalak, Zikuñaga bailarako urbanizazioa hobetzeko egiten ari den lanen baitan, horien artean Karabeleko birigilgunea egitea sartzen baita, LOIRE SAFEren lurrak berehala erabili eta okupatu beharra dauka.

LAUGARRENA.-

Bestalde, Diputatuen Kontseiluak hitzartutakoaren ondorioz (LEHEN aurrekarian aipatu da), Hernaniko Udalak Arau Subsidiarioen Testu Bategina idatzi eta bideratu beharra dauka; bertan, onartutako ebazpenak planteatutako hirigintza-gaiak zuzenduko eta konponduko ditu.

Gaur egun, 2008ko irailetik, udal zerbitzu teknikoak Arau Subsidiarioen Testu Bategina idazten ari dira hura Foru Aldundiari helarazteko; izan ere, Hernaniko Udalak jada finkatu du egiturazko antolamendua.

BOSGARRENA.-

Bi aldeak ados daude Hernaniko Udalak urbanizazioa hobetzeko helburuz proposatutakoarekin eta, gainera, LORE SAFEri jarduera honen etorkizuneko garapena bideratuko duten eskubideak kontsolidatzea interesetzen zaio. Horregatik, bidezko jo dute **Hirigintza Hitzarmen** bidez gauzatzea. Hona hemen, bada, hitzarmenaren

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.-

FERMIN ORIA IRIBARREN jaunak, LOIRE SAFE merkantilean duen ordezkaritza erabiliz, hitzarmen honen LEHEN aurrekarian

caducidad alguno respecto de la referida licencia.

De la misma forma, LOIRE SAFE no cumplimentó la condición impuesta por la Corporación de proceder a la cesión de la superficie precisa para la ejecución del proyecto de construcción de la nueva rotonda de Karabel y a la ampliación del vial de ribera del río Urumea.

En este momento, el Ayuntamiento de Hernani, en el contexto de ejecutar las obras de mejora de urbanización del Barrio de Zikuñaga, entre ellas las que se refieren a la ejecución de la definitiva rotonda de Karabel, precisa disponer y ocupar los terrenos propiedad de LOIRE SAFE, con carácter inmediato.

CUARTO.-

Por su parte, como consecuencia del acuerdo del Consejo de Diputados, citado en el antecedente PRIMERO, el Ayuntamiento de Hernani está obligado a redactar y tramitar un Texto Refundido de las NNSS en el que se efectúen las correcciones y se resuelvan las cuestiones urbanísticas planteadas por la resolución aprobatoria.

En la actualidad, desde septiembre de 2008 los servicios técnicos municipales vienen procediendo a la redacción del Texto Refundido de las NNSS, requerido por la Diputación Foral, habiendo llegado ya a la definición de la ordenación estructural.

QUINTO.-

Estando ambas partes de acuerdo en el objetivo de mejora de urbanización propuesto por el Ayuntamiento de Hernani, e interesando, igualmente a la entidad LOIRE SAFE consolidar los derechos que posibiliten el desarrollo futuro de esta actividad, se ha estimado oportuno plasmar en un **Convenio Urbanístico**, que se concreta en las siguientes:

ESTIPULACIONES

PRIMERA.-

Don FERMIN ORIA IRIBARREN, en la representación que ostenta de la mercantil LOIRE SAFE, segrega de la parcela descrita en el antecedente PRIMERO

deskribatutako lurzatitik BIGARREN aurrekarian deskribatutako finkak banantzen ditu, eta Hernaniko Udalari lagatzen, eta Hernaniko Udalak onartu egiten ditu, karga guztietatik libre eta kontribuzio eta zerga ordainketa guztiak egunean dituela.

de este Convenio, las fincas descritas en el antecedente SEGUNDO y cede las mismas al Ayuntamiento de Hernani, que acepta, libre de carga alguna y al corriente en el pago de contribuciones e impuestos.

Lagapena doakoa da, eta bere garaian pabiloia handitzeko lizentzia gauzatu ahal izateko ordaindu beharko lituzkeen hirigintza betebeharren aldez aurretiko betetetze gisa hartu behar da.

La cesión se realiza con carácter gratuito, considerando la misma como el cumplimiento adelantado de obligaciones urbanísticas establecidas por la legislación vigente y a las que en todo caso deberá hacer frente para poder materializar, en su día, la licencia de ampliación del actual pabellón.

Hitzarmen honetan aipatzen den doako lagapen eskritura formalizatzen ez den bitartean, LOIRE SAFEri dagozkio dokumentu honen bidez lagatutako lurrei legozkiekeen eskubideak, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidearen zati bat eraikitze aldera egingo duen egitasmoa burutzeko beharrezkoak izango diren desjabetzeei dagokienez (zubibide bat egingo da Nafarrora doan errepidean gainean eta Karabeleko erriberaren gainean, Biyak bat, hau da, gaur egun Hernaniko Arau Subsidiarioen LH-27.2 den horretan). Kasu honetan, dokumentu honen bidez doan lagatzen den lurzoruaren azalera murriztu egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiak desjabetua gertatzen den zatian.

Hasta tanto la escritura de cesión gratuita a que se hace referencia en este Convenio no sea formalizada, LOIRE SAFE mantiene los derechos que a los suelos cedidos en este documento les pudieran corresponder, en especial, lo que resultara de las expropiaciones que sean necesarias para ejecutar el Proyecto que va a elaborar la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa para la construcción de un tramo de la variante Sur de Hernani (a efectuar en viaducto sobre la carretera a Navarra y sobre el vial de ribera de Karabel Biyak-bat, es decir en lo que actualmente es la SU-27.2 DE LAS Normas Subsidiarias de Hernani). En este caso, la superficie del suelo cuya cesión gratuita se realiza en este documento se reducirá en la parte del mismo que resulte expropiada por la Diputación Foral de Guipúzcoa.

BIGARRENA.-

Hernaniko Udalak konpromiso hau hartzen du: prestatzen ari den Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginean LOIRE SAFE enpresak Zikuñaga bailarako 22 zenbakian dituen instalazioak handitu ahal izateko beharrezkoak diren hirigintza zehaztapenak sartuko dituela, zehazki Hernaniko Udaleko Gobernu Batzordeak 2003ko apirilaren 25en baimendutako obrak egin ahal izateko beharrezkoak direnak, eta, gainera, lizentzia emandako proiektuaren arabera egitekoa den eraikin berriaren erdia hartuko duen solairuarte bat eraiki dadila ahalbidetuko duela.

Era berean, Testu Bategin horrek orokorrean jasoko du LH-27.5 arean lur zatiketak eta bananketak egiteko aukera, eta mugatu ahal izango diren gehieneko lur zatiak adieraziko du.

SEGUNDA.-

El Ayuntamiento de Hernani se compromete a incluir en el Texto Refundido de la Revisión de las NNSS que se halla en proceso de redacción las determinaciones urbanísticas necesarias para poder llevar a cabo la ampliación de las instalaciones que la empresa LOIRE SAFE cuenta en el nº 22 del barrio de Zikuñaga, concretamente para permitir la ejecución de las obras autorizadas el 25 de abril de 2003 por la Comisión de Gobierno del Ayuntamiento de Hernani y que posibilitará, además, la construcción de una entreplanta que ocupará la mitad del nuevo edificio a construir en base al proyecto licenciado.

Igualmente, este Texto Refundido incorporará de forma genérica la posibilidad de efectuar parcelaciones o segregaciones en el ámbito del área SU-27.5 y señalará el número máximo de

Haiek gauzatu ahal izateko Hiri Antolamenduko Plan Berezi bat egitea eskatuko du, eta horren arabera zehaztuko dira bete beharreko baldintza bereziak.

parcelas que podrán delimitarse, exigiendo para poder materializar aquéllas, la elaboración de un Plan Especial de Ordenación Urbana, que será quien determine las específicas condiciones que hayan de cumplirse.

HIRUGARRENA.-

Dokumentu honen bidez egingo den lurzoru lagapena gauzatzen denean, udalak betetzat emango ditu LOIRE SAFEri LH-27.5 areako jarduketaren inguruan dagozkion betebehar guztiak, salbu eta %15en lagapenari legozkiokeenak, egokituz gero, eta, horrenbestez, erriberako bidean eraiki beharreko espaloia bere kontura urbanizatzeko betebeherraz salbuetsi egingo luke, pabiloia handitzearen ondorioz agian egin beharko lirateken urbanizazio obra osagarriak alde batera.

TERCERA.-

Con la cesión de suelo que se efectúa en este documento, el Ayuntamiento considera cumplidas todas las obligaciones correspondientes a LOIRE, S.A.F.E. en la actuación del Área SU-27.5, a excepción de la concerniente a la cesión del 15%, si procediera, exonerándole, por consiguiente, de la obligación de urbanizar a su cuenta, la acera a construir a lo largo del vial de la ribera y sin perjuicio de las obras complementarias de urbanización que la ejecución de la ampliación del pabellón pudieran conllevar.

LAUGARRENA.-

2003ko apirilaren 25eko lizentzia gauzatze aldera, LORE SAFEk Hernaniko Udalari idatziz jakinarazi beharko dio obra horiek hasteko asmoa duela. Une horretan udalbatzak ordaindutzat emango ditu 882.000 €-ko exekuzio materialeko aurrekontuari dagozkion udal tasa eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga. Dena den, udalak eskubidea izango du exekuzio materialeko aurrekontu horretan aldaketak gertatuz gero aldaketa horien araberako kitapen osagarriak egiteko.

CUARTA.-

Para materializar la ejecución de la licencia de 25 de abril de 2003, LOIRE SAFE deberá comunicar por escrito al Ayuntamiento de Hernani su voluntad de dar inicio a las mismas, dándose en ese momento por pagadas por la Corporación la tasa municipal y el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras correspondientes a un Presupuesto de Ejecución Material de 882.000 €, y sin perjuicio, en consecuencia, del derecho municipal de efectuar liquidaciones complementarias en función de eventuales modificaciones de dicho presupuesto de ejecución material.

BOSGARRENA.-

Udalak hitz ematen du LOIRE SAFEri pasabide iraunkorreko udal baimena emango diola bai pabiloia handitzearen ondorioz izango den sarrera berrirako, bai eta gaur egun Zikuñaga kalean dagoen sarrerarako.

QUINTA.-

El Ayuntamiento se compromete a conceder a LOIRE, S.A.F.E., la autorización municipal de vado permanente tanto para la nueva entrada que resulte como consecuencia de las obras de ampliación del pabellón como a la ya existente en la C/ Zikuñaga.

SEIGARRENA.-

Hernaniko Udalak une honetantxe okupatzen du banandutako finka, LOIRE SAFEk lagatutakoa, eta enpresa horrek udalari espresuki baimena ematen dio obrak berehala has daitezen.

SEXTA.-

El Ayuntamiento de Hernani ocupa en este momento la finca segregada y que le ha sido cedida por la entidad LOIRE SAFE, autorizando ésta a la Corporación expresamente el inicio inmediato de la ejecución de las obras.

ZAZPIGARRENA.-

Hitzarmen honen LEHEN estipulazioan ezarritako jabetzaren transmisioa Hernaniko Udalak jabeari eskatzen dionetik HILABETEKO epean formalizatuko da eskritura publikoan, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren behin betiko onarpenaren ondoren, eta Udalak LAUGARREN estipulazioan aipatutako lizentzia gauzatzeko idazkiaren berri izan duenean. Jabetza-transmisio hori gauzatzeak sortzen dituen gastu guztiak Hernaniko Udalak ordainduko ditu (eskritura publikoak, erregistro-gastuak...).

SÉPTIMA.-

La transmisión de la propiedad establecida por la Estipulación PRIMERA de este Convenio, se formalizará en escritura pública en el plazo máximo de UN MES desde que la propiedad sea requerida para ello por el Ayuntamiento de Hernani tras la aprobación definitiva del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias y en el momento en que el Ayuntamiento se dé por enterado del escrito de materialización de licencia a que se ha hecho referencia en la Estipulación CUARTA. Todos los gastos que la formalización de la referida transmisión origine serán por cuenta y cargo del Ayuntamiento de Hernani (escrituras públicas, gastos registrales, etc).

ZORTZIGARRENA.-

FERMIN ORIA IRIBARREN jaunak, duen ordezkaritza erabiliz, hitz ematen du ordezkatzen duen merkantilak inoiz hitzarmen honen gai den finkaren titulartasuna hirugarrenen bati eskualdatzen badio, dokumentu honetan ezarritako eskubide eta betebeharrak bere gain hartzera behartuko dituela erosle berriak, aldez aurretik Hernaniko Udalari horren berri emanda.

OCTAVA.-

Don FERMIN ORIA IRIBARREN en la representación que ostenta se compromete a que en el caso de que si la mercantil a la que representa fuera a transmitir a terceros la titularidad de la finca objeto de este Convenio, ésta hará asumir, de forma expresa, a los nuevos adquirientes los derechos y obligaciones establecidos por el presente documento, notificándolo de forma previa y fehaciente al Ayuntamiento de Hernani.

Eta horrekin ados daudela erakusteko, parte-hartzaileek agiri hau eta beharrezko ale guztiak sinatu dituzte, ondorio berarekin eta aipatutako lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad, firman las partes que suscriben este documento, en tantos ejemplares como firmantes, y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados.